

ARGIBIDE OHARRA

GIZARTERATZEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIAREN

BEHIN BETIKO GAITEGIA

1. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa: Pertsonen eskubideak. Datuak Babesteko Espainiako Agentzia.
2. 15/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
3. 30/2019 Foru Dekretua, martxoaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretua, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa eta gaiarekin loturiko aurreragoko xedapenak onesten dituena. A.3. A.4, A.7, A.8, A.9, A.10, F.2 eta G.5.
4. 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa.
5. 15/2016 Foru Legea, azaroaren 11koa, Gizarteratzerako eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituena.
6. 94/2016 Foru Dekretua, urriaren 26koa, Nafarroako gizarteratze eta laneratze enpresen kalifikazioaren, erregistroaren eta laguntzen araubidea arautzen dituena.
7. 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa, Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa.
8. Iruñean bazterketa larria jasaten dutenendako programa arautzen duen ordenantza.
9. Iruñeko Udalean gizarte zerbitzuekin loturik dagoen alorraren antolaketa. Tresnak, programak eta baliabide sozialak.
10. Gizarte-bazterketa. Kontzeptua. Baztertutako pertsonak identifikatzeko adierazle sozialak. "La exclusión social: análisis y propuestas para su prevención" Anabel Moriña. 3. kapitulua eta <https://www.redpobreza.org/wp-content/uploads/2020/08/ACOMPA%C3%91AMIENTO-CORREGIDO-J2016B.pdf>
11. SIDIS (Gizarteratzeko Eskubidearen informazio-sistema). Gizarte-bazterketa baloratzeko instrumentu teknikoa.
12. Lagun-egite soziala gizarteratze prozesuetan esku hartzeko metodo gisa: definizio adostua, ezaugarriak, faseak <https://www.redpobreza.org/wp-content/uploads/2020/08/ACOMPA%C3%91AMIENTO-CORREGIDO-J2016B.pdf>
13. Iruñeko Udalaren Lanera Bideratzeko eta Gizarteratzeko Lantaldea (EISOL).
14. Nafarroako Foru Komunitateko Haurren Babesaren esparruko II. Prozeduraren eskuliburua. 1. liburukia
15. Iruñeko Haur eta Nerabeendako II. Udal-plana 2018-2022. Iruñeko Udala. Atalak: 3. Esparru teoriko eta kontzeptuala. 9. Zaurgarritasun sozialeko egoeran dauden haurrak eta nerabeak

eta 11.a. Ildo estrategikoak. (Kendu egin genuen. Jakinarazi dute Gizarte Ekintzatik).

<https://www.pamplona.es/sites/default/files/2019-04/PlanMunicipaldeInfanciayAdolescencia2018-2022%20%28CASTELLANO%29%20FINAL%20WEB%202019.pdf>

16. Haurren beharrezanaren teoria. "Gizarte-diagnostikoa, Nafarroako Foru Komunitateko familien, haurren eta nerabeen egoerari buruz". Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia. Iruña, 2017ko maiatza. I. eranskina. Haurren eskubideak eta beharrezanak.
17. Tratu onen teoria. Definizioa eta oinarriko kontzeptuak. Haurrenganako tratu ona: gurasotasuna, atxikimendua eta erresilientzia. Jorge Barudy- 2005". 1., 2. eta 3. kapituluak:
18. Etika esku-hartze sozialean: Gizarte-hezitzailearen kode-deontologikoa.
19. Elkarrizketa. "La entrevista en el trabajo social. Teresa Rosell eta Pepita Rodríguez". 3. kapitulua.
20. Esku-hartze soziala. Kontzeptua, ezaugarriak, helburuak, metodologia eta faseak <http://pablodelarosa.sitios.uva.es/sites/pablodelarosa.sitios.uva.es/files/Texto%20Tema%20I%20Completo.%20La%20intervenci%C3%B3n%20social.pdf>.
21. Familia: definizioa eta motak. "Trabajo social con familias. Tomás Fernández eta Laura Ponce de León. 4. kapitulua"
22. Metodología para la inclusión. Bases del modelo de intervención de la Fundación Sartu. (59 - 99 or.).
23. Teknikak eta talde-dinamikak <https://www.juventudnavarra.es/imagenes/documentos/capitulo-11-tecnica-de-grupo-dinamicas-153-es.pdf?ts=20201128160620>
24. Komunitate-esparrua gizarte-ekintzan. <https://eduso.net/res/revista/7/marco-teorico/la-acc>
25. Espainiako Gobernuaren Garapen Jasagarrirako 2030 Estrategiako 1. herrialde-erronka: <https://www.mdsocialesa2030.gob.es/agenda2030/documentos/eds-cast-acce.pdf>
26. Eredu sistemikoa. "Trabajo social con familias. Tomás Fernández eta Laura Ponce de León. 7.2 kapitulua"
27. Bitartekaritza soziala kultura-aniztasuneko testuinguruetan. Kulturartekotasuna. Helburuak, prozesua. https://www.entreculturas.org/sites/default/files/interculturalidad_claves_para_entendernos.pdf
28. Haurren eskubideen hitzarmena <https://www.un.org/es/events/childrenday/pdf/derechos.pdf>

29. Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 70/1 Ebazpena, 2030 Agendarako:
https://unctad.org/system/files/official-document/ares70d1_es.pdf
30. Espainiako Gobernuaren Garapen Jasagarrirako 2030 Estrategiako 1. herrialde-erronka:
<https://www.mdsocialesa2030.gob.es/agenda2030/documentos/eds-cast-acce.pdf>
31. Hezkuntza aisialdian. Esparru kontzeptuala eta oinarri pedagogikoak
<https://eala.files.wordpress.com/2011/02/pedagogc3ada-del-ocio.pdf>

II ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

a) Merezimendu profesionalak:

Administrazio publikoetan kasuan kasuko deialdia argitaratzen den egunera arte egindako zerbitzuak baloratuko dira, gehienez 30 punturekin, puntuazio honen arabera:

- a.1) Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan, deialdiaren xedeko lanpostu berean, aldi baterako egindako zerbitzuak: 4 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.
- a.2) Iruñeko Udalean eta eta haren erakunde autonomoetan, beste lanpostu batzuetan egindako zerbitzuak: 0,50 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.
- a.3) Beste administrazio publiko batzuetan, lanpostu berean egindako zerbitzuak: 1,50 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.

a.1, a.2 eta a.3 apartatueterako oharrak:

1. a) apartatu honi dagokion puntuazioa gehienez ere 30 puntukoa izanen da.
2. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa esleituko zaio.
3. Zerbitzuak baloratuko dira zerbitzu bakoitzaren hasiera egunetik amaierara arte, egindako lanaldiaren ehunekoa edozein dela ere.
4. Ez dira baloratuko deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak.
5. Administrari laguntzailearen eta ofizial administrariaren lanpostuetan izandako esperientzia berdin baloratuko da (bi deialdietako bakoitzean sartzeko titulazio-baldintzak desberdinak badira ere).
6. Izangaia prestakuntzarako zerbitzu berezietan edo jarduneko zerbitzu bereziko egoeran egon den aldiak benetan bete duen lanpostuan egindako zerbitzuak balira bezala kontatuko dira.
Izangaia zerbitzu berezietan egon bada beste arrazoi batzuegatik, edo eszedentzia berezian egon bada, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan, aldi horietako zerbitzuak kontatzeko, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan egin izan balitu bezala kontatuko dira.
7. Aurreko azpiapartatuetan emandako puntuazioak bateraezinak izanen dira epe berari dagozkionean. Halakoetan, kasu bakoitzean handiena den puntuazioa emanen da.

b) Beste merezimendu batzuk: gehienez ere 10 puntu.

b.1) Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan lanpostu berean sartzeko azken prozesua lanposturik eskuratu gabe gainditu izana: 5 puntu.

b.2) Beste titulazio akademiko batzuk:

b.2.1) Titulazio ofizialak eta master-tituluak, maila berekoak edo goragokoak, deialdian sartzeko titulazioa baloratu gabe: 1,25 puntu titulazio ofizial bakoitzeko, gehienez ere 2 titulazio (2,50 puntu gehienez).

b.2.2) Deialdiaren xede den lanpostuarekin zerikusia duten prestakuntza-ekintzak, 50 orduko edo gehiagoko iraupena dutenak eta 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerakoak: 1,25 puntu prestakuntza-ekintza bakoitzeko, gehienez ere 2 prestakuntza (2,50 puntu gehienez).

❖ Lanpostuarekin zerikusia dutela ulertuko da informatikarekin, berdintasunarekin edo prebentzioarekin zerikusia duten zeharkako prestakuntza-ekintza guztiak. Halaber, lanpostuarekin zerikusia duten berariazko prestakuntza-ekintzak ere aintzat hartuko dira.

b.3) Ingelesa, frantsesa, alemana eta euskara: ingelesa, frantsesa edo alemana jakitea, Europar Batasuneko laneko hizkuntzak diren aldetik, baita euskara jakitea ere, baloratuko da, plantilla organikoaren arabera lanpostuan aritzeko hizkuntza horiek jakitea nahitaezkoa ez denean, Gizarte Langileen eta Gizarteratzeko Teknikarien lanpostuetan: 0,50 puntu gehienez hizkuntza bakoitzagatik.

b.2 eta b.3 apartatuetarako oharrak:

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren pareko jakite-maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiria duenari aurreko apartatuetan hizkuntza bakoitzarentzat ezarritako baloraziorik handiena emanen zaio.

Titulu edo ziurtagiri hori izan ezean, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A1 mailaren pareko titulu edo ziurtagiri bat izanez gero, gehienez eman daitekeen puntuazioaren 1/5 jasoko da; A2 mailaren parekoa izanez gero, 2/5; B1 mailaren parekoa izanez gero, 3/5; eta, B2 mailaren parekoa izanez gero, 4/5.